

Matteomigliako postontziak

Karlos Linazasoro

Bulegoan zegoen Frantisek Abravanel Klee, Franti, Jirasek jau-regian, paperak txukuntzen. Halako batean, Luke postaria sartu zen, zalapartaka eta oihuka.

—Itsasoa! Itsasoa! —egin zuen deiadar.

—Zer diozu, Luke. Lasaitu zaitetz! —esan zion Frantik, patxadaz.

—Itsasoa, Franti! Itsasoa! —errepikatu zuen postariak urduri.

—Zer gertatzen da itsasoarekin, Luke? Matteomiglian ez daukagu itsasorik! —esan zuen Frantik iribarrez, lagunari harriturik begira.

—Ez geneukan, Franti; atzo, ez geneukan! Gaur, bai! —bota zuen Lukek azkazalak horzkatuz.

—Hori ez da posible, lagun! —egin zuen barre Frantik.

—Ezetz? Zatoz nirekin! —eta kalera irten ziren biak.

Parkeraino iritsi ziren korrika ttikian. Eguzkia lo zegoen zabuetan, goxo-goxo. Luke postariak postontziko giltza atera zuen patrikatik.

—Adi, Franti.

Eta postontzia ireki zuen.

Ura borborka irten zen handik, indarrez, olatu erraldoi bat bezala. Eta uholde harekin batera, arrain koloretsuak, olagarroak, kainaberak, balauntziak, marrazoak, itsas-zaldiak, koralak, baleak

eta gizurdeak, arroak, karramarro beltzak eta dortoka gorriak...

—Ah, zein zoragarria! Zein ederra! —mirestu zuen Frantik.

—Arrazoi nuen ala ez nuen arrazoirik, Franti? —galdetu zion postariak harro-harro.

—Arrazoi guztia, Luke, arrazoi guztia! Itsasoa da, ez dago dudarik —esan zion Frantik.

Postariak, atzera, atea itxi zuen. Larriturik zegoen.

—Franti, eta zer egingo dugu orain?

—Itsasoarekin?

—Ez, gutunekin.

—Zer gertatzen da gutunekin, Luke?

—Zer gertatuko da, bada! Ezin ditugula postontzian bota, busti egiten direlako! Desegin!

—Arraioa! Arrazoi duzu. Eta nola bidaliko ditugu Matteomigliako gutun ederrak munduko bazter guztietara?

—Hoorixe, Franti! Hoorixe jakin nahi dut nik!

—Eta gainerako postontziak?

—Denetan itsasoa, Franti.

—Hitz egin al duzu Gustav alkatearekin?

—Zuregana bidali nau. Zuk jakingo duzula zer egin.

—Ez dago gaizki esana, demonio!

—Eta zuk ba al dakizu zer egin, Franti?

—Zuri zer iruditzen zaizu, Luke?

—Ezetz. Ez dakizula zer egin...

—Bada, ez, ez dakit zer egin...

—Itxaron! Uste dut badakizula zer egin...

—Bada, bai, uste dut badakidala zer egin... Eta zer egin liteke, lagun?

—Ez dakit. Zeu zara udaleko funtzionarioa...

—Bai, hori ere egia da...

—Hortaz, zer egingo dugu, Franti?

—Begira, Luke, gauza bat bururatu zait...

—Bota.

—Matteomiglia itsasoz inguraturik badago, zer da Matteomiglia?

—Zer da Matteomiglia... zer da Matteomiglia... Irla bat!

—Ongi, txapeldun! Irla bat bezalakoa. Baina guk ez daukagu itsasontzirik, ez baitaukagu itsasorik...

—Nola ez daukagula itsasorik! Hori xe daukagula!

—Bai, Luke, badaukagu... baina postontzien barnean soilik.

—Eta?

—Bada, ez daukagula itsasontzirik, Matteomiglia ez delako irla bat...

—Irla bat dela esan didazu oraintxe, Franti!

—Irla bat bezalakoa, ez irla bat.

—Eta?



LLUÍS FARRÉ.

—Bada, naufrago batzuk garela, Luke. Ez daukagu itsasontzirik Matteomigliatik irteteko!

—Baina bai autoak eta motorrak eta autobusak eta trenak eta...

—Eta gutunak zer, Luke? Non botako ditugu? Auto batean? Bizikleta batean?

—Hori ezinezkoa da, Franti. Gutunak postontzian bota behar dira, noski!

—Eta zer gertatzen da Matteomi-

gliako postontziekin, adiskide?

—Itsasoz beterik daudela!

—Eta, gutunak eramateko itsasontzirik ez badaukagu, zer gara matteomigliatarrak, Luke?

—Naufragoak! Naufrago dohakabe batzuk!

—Hoorixe, lagun!

—Eta zer egingo dugu orain? Galduak gara!

—Ez, Luke, begira: nola bidaltzen dituzte beren mezuak naufragoek?

—Botila batean sarturik.

—Ongi esan duzu.

—Botila batean sarturik!

—Bai, jauna: botila batean sarturik. Zer iruditzen zaizu?

—Postontzien ahoa handitu beharko dugula, Franti. Oraintxe bertan gainera!